

## MUGIKORTASUN MAHAIA

Eguna: 2016/12/20

ORDUA: 19:30

Bertaratuak:		
Manolo Iturrioz	Arantxa Fernández	Aitor Velázquez
Amparo Diaz de Cerio	Carlos Gonzalez	Aitor Escalante
Fermin Sukia	Iñaki Dubreuil	

Bertaratu ez direnak: Leire Arandia, Bilduren eta Ordizia Orainen ordezkaria.

19:47an mugikortasun mahaiaren hirugarren bilera hasi da.

Iñaki Dubreuil: Jakinarazi du hainbat arrazoiengatik ezin izan duela azkeneko bileraren aktaren zuzenketa bidali. Adierazi du mahaiko kide guztiek bileren akta guztiak onartu ondoren bilera hauetako grabazioak borratu behar liratekeela.

Manuel Iturrioz: Gaineratu du, mahaikide batzuk ez daudela kontuan izanda (Ordizia Orain eta EH Bildukoei dagokienez), bilera guztietako grabazioak gorde behar liratekeela.

Carlos Gonzalez: Esan du grabazio guztiak gorde behar lituzkeela jasotzaile batek. Hondakinen mahaian egin zen moduan.

Bertan daudenek aho batez onartu dute, Ordizia Orain eta EH Bilduko ordezkariak mugikortasun mahaira etortzen ez diren bitartean, Aitor Escalantek gordetzea grabaketa guztiak eta soilik erabiltzea mahaiko kideren bat aktan jasotakoarekin ados ez badago.

Iñaki Dubreuil egindako zuzenketak sartu eta gero, mahaiak aurreko bileraren akta onartu du.

Carlos Gonzalez: Ordizia Orain eta EH Bildukoei egin zitzaie gonbidapenen inguruan jaso dituen erantzunen berri eman die bertan dauden guztiei.

Mahaiaren gonpidapena eta bi taldeek emandako erantzunak erantsi dira.

Iñaki Dubreuil: Jasotako erantzunekiko desadostasuna azaldu du eta azpimarratu du mahai honen formatua aurreko mahaietan erabiltako beste formatu batzuk baino askoz garbiagoa eta parte-hartzaileagoa dela (aipatu du, beste formatu horietan, alde politikoak zenbait arau erabakitzen dituela eta horietan oinarrituta dagokion mahaia lanean hasten da).

Carlos Gonzalez: Jasotako erantzunak aztertu ditu eta bere ustez, bi erantzunen helburua da mahai honetatik ateratzea eztabaida eta politikoki erabakitzea. Eta horri uko egiten dio guztiz.

Mahaiak aho batez erabaki du hurrengo bilera urtarrilaren 10ean izatea 19:30ean. Horrekin batera berriro bi taldeak gonbidatzea erabaki da.

Iñaki Dubreuil: Bere ustez bilera guztien eguneko zerrendan egon behar luke bestelako iradokizunetara zabalik dagoen puntu bat.

20:35ean, guztion partaidetzari buruzko gaiarekin amaitu ostean, trafikoko gaiak aztertzen hasi dira kideak.

Arantxa Fernández: Mahaikideei jakinarazi die Malkaskoko biribilgunea atzeratzeko erabakia hartu dela mahai honek behar hori azter dezan.

Carlos Gonzalez: Auzo bakoitzak aparkalekuen eta trafikokoaren inguruan dituen arazoak lantzen hastea proposatzen du.

Aitor Escalante: Adierazi du bere ustez mahai hau bi gai zehatzetarako osatu dela. Herrigune inguruko aparkalekuaren kokalekua eta Ordiziako erdigunean trafikoa berrantolatzea.

21:15ean bilera amaitu da eta mahaiaren hurrengo deialdia 2017/01/10ean izango da.

---

### **\*Mugikortasun mahaira gonbidatzea eta erantzuna**

#### GONBIDAPENA:

Kaixo:

Atzoko bilera eta gero, hitzeman nuen moduan, mugikortasun mahaiaren gonbidapenaren inguruan bertan hartu zen erabakiaren berri ematen dut: Gabonak pasa ondoren gai hau aztertzeko formatu egokia zein den aztertuko dugu, eta noski, udal talde politiko guztiak bertan direla.

Ondo izan

#### ERANTZUNAK:

1-

"Kaixo:

Deialdi honi erantzunez aipatu behar dut alderdi politiko honen ADNaren ezaugarria dela elkarrizketa, hori dela eta, jakinarazi nahi dizut inoiz ez diogula oztoporik ipini edozein pertsona, alderdi, elkarterekin edo edozein bilera-deitzailearekin bilera egiteari.

Nolanahi ere ezin diot zure gonbidapenari erantzun, astelehenera arte ezin baitugu taldea bildu. Bertan erabakia hartu eta gero, dagokion erantzuna helaraziko dizut.

Ondo izan

Mila”

2-

"Eguerdi on Carlos:

Barkatu lehenago erantzun ez izanagatik. Bi lehenengo bileretara ez joatearen arrazoiak azaldu genizkion jada alkateari. Gainera, uste dugu hori egiteko era zuzenena zela, gauzak nola egiten ari diren kontuan izanda gure haserrea bileran erakutsiz bilerara joaten diren herritarren borondatea desitxuratu zezakeelako.

Ez dugu inolako arazorik, inoiz izan ez dugun moduan, gai horri buruz edo bestelako bati buruz dagokionarekin hitz egin eta eztabaidatzeko. Zentzu horretan uste dugu gai hori udal ordezkarien artean aztertu behar dugula (zu barnean zarela, jakina).

Hala ere, datorren astean, osoko bilkuraz gain, asteartean herri batzarra dugu eta deialdia eginga dago. Egoera kontuan izanda guretzat garrantzia handiagoa du. Egun edo data hauek kontuan izanda egokiena Gabonak igarotakoan egitea izango litzateke.

Eskerrik asko.

Igor Eguren"